

EDERTASUNAREN FORMULAREN BILA

Perfekzioa vs perfekzioaren irudikapena

Gaiak Argitaletxea

Egilea: Txemi Valdecantos

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

2012/06/17

Perfekzioa, eredu jakin baten gauzatze zehatza da, osoa alegia. Zerbait ezin hobea denean, hau da, sor ditzakeen espektatiba guzti-guztiak asetzen dituenean, orduan deritzogu perfekzioaren aurrean gaudela. Honengatik perfekzioari “ideala” ere deitu ohi zaio, aurreikusitako ideia batekiko erabateko uztartzea lortzen duelako.

Posible al da perfekzioa gauzatzea?

Platonek zioenez, gure mundu honetan dauden (gauden) forma guztiak, lehenagotik jadanik existitzen diren Ideia batzuen isla inperfektuak baino ez dira. Greziar filosofo ospetsuak kobazuloaren mitoarekin proposatu zuen bezala, formak ideia jatorren itzalen modukoak lirateke, eta horrenbestez, inoiz ez liratekeen haiek bezain zehatzak izatera helduko. Kopia beti kopia izango baitira, eta originalak beti original. Ezberdinak beraz: gehienez antzekoak, baina perfektuaren antzekoa besterik ez dena, inperfektua da ezinbestean.

Perfekzio objektiboa.

Eredu baten ahalik eta gauzatze osoena egiteko saiakeran, zehaztasuna da helmuga nagusia. Zehaztasun kirurgikoa, matematikoa. Hasierako eredu hori matematikoki azaltzeko modua aurkituko bagenu beraz, doitasunez berregin ahal izateko bidean geundeke.

Estetika kontuetan, adibidez, edertasun idealaren eredia objektiboki formulatzeko aukera izatekotan, hura objektiboki gauzatzeko parada ere izango genuke. Edertasuna, ordea, kontzeptu subjektiboa da, aldakorra, eta kulturala. Hala ere, zenbait testuingurutan, konbentzio zabalaz ebatzi izan da edertasunak “berezko” ezaugarri neurgarriak dituela. Greziatik mugitu gabe

adibidez, K.a. V. mendeko esteta klasikoek edertasuna matematikoki konposatzeko saiakera egin zuten.

Orduantxe eraiki zuten Atenasko Akropolia, perfekzioaren irudi zen tenplu-multzo ikusgarria. Eta haren parte, ordutik eraikin idealtzat hartua izan den Partenoia. Atena jainkosaren omenez egindako tenplua ederra behar zuen izan, denetan ederrena. Eta horretarako, edertasun idealaren formula erabili beharrean zeuden.

Proportzio jainkotierra

Gaur egun ezagutzen ditugunen moduko planorik ez zuten erabili; neurri jakin bateko soka bat baliatuz, eraikinaren edozein zatiren arteko proportzioa lor zezaketen, eta hortik aurrera, zati bakoitzaren tamaina ere.

Partenoia proiektatzeko, zenbaki bakar batean oinarrituriko proportzio-sistema bat erabili zuten. Zenbaki hartatik abiatuta, eraikinaren zati guztiak jar zitezkeen harremanetan. Ez zen noski arbitrarioki erabakitako zenbakia; oso zenbaki berezia zen. Zenbaki irrazionala zen, idatzi-ezina, beraz. Jainkosa baten izaera adierazteko aproposa zen, hau gizaki soilentzat ulergaitza bailitzateke, baina baita Ideia perfektu bat ordezkatzeko ere. Ezinezkoa bada, esan dugunez, perfekzioa gauzatzea, zerk adieraziko luke hobe Ideia hori, gauza-ezina den zenbaki batek baino?

1,61803398874... zen gerora *phi* (Φ, ϕ) letraz izendatuko zuten zenbaki berezi hori, eta Naturan oso hedatua dagoen espiral bat osatzen duen progresio matematikoaren oinarria ere bada, Fibonacci progresioarena hain zuzen. Espiral hau karakolen oskoletan ikus dezakegu, borraskekin sortzen diren zurrunbiloetan edota hainbat loreen egituran ere. Progresio hori erabiliz (0,1,1,2,3,5,8,13,21,34,...) laukizuzen bat marrazten badugu, Partenoia baten fatxada bertan sartu ahal izango dugu zehaztasun osoz: kirurgikoki. Perfektuki ote? Gainera, edertasuna bezala, *phi* ere aldakorra da; progresioan zenbat eta aurrerago jo, hainbat eta zehatzagoa izango da: infinitura gerturatzen garen heinean, beraz, zenbaki perfektuarengandik hurbilago izango gara. Baina zehaztasun osoa harrapaezina izango da betiere.

Edertasuna, bestalde, gauzak atsegin egiten dizkigun propietatea da. Zentzu horretan, eta edertasunaren formula matematikoa eskuartean badarabilgu, ez zaigu arrotz egingo eredu hori marketin eta diseinu kontuetan guztiz erabilgarria dela jakiteak. Gauzak, eta kasu honetan salgai dauden produktuak, atsegin bihurtu nahi baditugu, eta beraz erakargarri, ederrak ekoiztu beharko ditugu. Tabako-kutxatila, bisita-txartela edota kreditu-txartel batek, *phi* zenbakiaren bitartez eraturiko laukizuzen jainkotiar haren irudiz eginak daude, Partenoia baten fatxada zaharra bezalaxe.

Tenpluaren planta laukizuzena ere, bere alde luze eta motzaren arteko harremanari so, beste zenbaki irrazional batetik sortzen da. Zenbaki hau bosten erro karratua da (2,236067...), eta ϕ -ren formularen parte ere bada. $\Phi=(1+\sqrt{5})/2\approx 1,6180\dots$

Eta perfekzioa subjektiboa balitz?

Harrigarria da, era berean, Partenoi osoan ia marra zuzenik ez dagoenez ohartzea. Hain eraikin geometrikoa eta eskuairatua den horretan, gezurra badirudi ere, kurbak dira nagusi. Oso kurba sotilak dira, baina.

Greziar estetika klasikoa, geure estetikaren oinarria den hori bera, filosofia humanistaren hariari jarraituz dago eraikia. Humanismoak pertsona du ardatz. Eta pertsona inperfekzioz beteriko izakia da. Beraz, Partenoia estetika horren arabera altxatu bazuten, tenpluaren ikusle eta erabiltzaile izango zen pertsonaren inperfekzioaren ezaugarriak hartu behar izan zituzten kontuan. Eraikina perfektua izateko, hortaz, gizakiaren begietara izan behar zuen perfektu.

Partenoia okerra da, guk zuzen ikus dezagun. Fatxadetako zutabeak goraka luzatuko bagenu, adibidez, 4.800 metrotara elkartu egingo lirateke; eraikinaren alboetan daudenak, aldiz, oraindik eta okertuago daude, eta 2.400 metrotan egingo lukete topo. Begia ahurra izanik, fatxada zuzen begiratzuz gero, soilik erdigunea enfokatuko genuke, eta ez alboak. Tenplua eraiki zutenek, honi jaramon eginez, kanpoaldeko zutabeak zabalagoak egin zituzten, fatxada bere osotasunean zuzen ikus genezan. Arrazoi beragatik, eta eraikinaren garaierak lekarkigukeen desitxurapena indargabetzeko, Partenoia guztiz konkortua dago, erdialdean 11 zentimetrorainoko sabeldura duelarik.

Horrelako hainbat zuzentze optiko ditu tenplu honek bere egituran zehar, eta denek xede bakar bat daukate: gizakiok eraikin perfektu bat ikus dezagula. Beraz perfektu dirudielako da ederra, eta ez berez perfektua delako.

Greko klasikoek geometria "asmatu" zutenean, Naturaren handitasun eta loria deskribatzeko tresna ia magiko bat aurkitu zutenaz ziur zeuden. Eta Partenoia, Akropoli osoa bezalaxe, lori horren adierazpenik onena da. Matematikak diotelako, bai, baina optikak ere hala esaten digulako. Badelako eta badirudielako.

ZOOM IN

Migel Angelek, Berpizkunde klasikoan, bere bi eskultura nagusiak egin zituenean, zuzentze optikoak ere, egin zizkien. *Pietà* (1498) sortu zuenean,

adibidez, Ama Birjina besoetan duen bere semea baino askozaz ere handiagoa da. Naturalismoarekiko neurrigabetasun horrek, ordea, konposizio osoari armonia eta oreka ematen dio, eta ama-semearen arteko “oker” horretaz ez gara ia jabetzen.

David (1504) egiterakoan ere, burua eta eskuen neurriak ez datoz bat gorputzak duenarekin. Behetik gora ikusia izateko sortua zen, eta “zuzen” egin izan balitu, txikiegiak eta deformatuak emango lukete. Gugandik urrutien legokeen zatia, burua alegia, begiratu beharreko lehenengo puntua litzateke, eta beraz azpimarratzeko moduko gorputz-atala; eskuei dagokienez, bigarren ardatz espresiboa lirateke, eta gu eta buruaren arteko iragaitea.